

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 1. atala

DATA: 2024/04/12

GUREAN

GURE TXOKOAK EZAGUTZEN

HH, LH eta DBHko ikasleek urteroko irteera nagusia egin zuten martxoaren 21ean eta 22an. Errepaso bat egingo dugu.

HHkoak Hernialdera joan ziren. Egun pasa egin zuten eta eguraldi ederra egin zuenez, bai frotoian, bai parkean, baita herrian bertan ere izugarri disfrutatu zuten.

LHkoek beste txoko batzuk ezagutzeko aukera izan zuten. LH 1. eta 2. mailako ikasleak Beizamara joan ziren.



LHko 3. eta 4. mailakoek Zarautzerako bidea hartu zuten eta 5. mailakoek Nafarroa bisitatzea erabaki zuten, Arantza, hain zuzen ere. LH6ko ikasleek aurrerago egingo dute beraien irteera.

DBHko ikasleen aukera ere oso zabala izan zen. DBHko 1. mailakoek Sobron eta Sarria bisitatu zituzten. 2. mailakoak Lasturrera hurbildu ziren abentura bila. 3. mailako ikasleek Nafarroan egun pare bat pasatzea erabaki zuten. Elizondon egon ziren. Bukatzeko, 4. mailako gazteek astebete pasatu zuten Jacan. Eskiatzeaz gain, beste ekintza batzuk antolatu zituzten. Ederki pasatu zuten.

ARGAZKI GEHIAGO:





XXI GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

NOIZ: APIRILAK 12-19

Giza eskubideei nahiz gizarte gaiei buruzko filmen Donostiako zinemaldia da, 2003. urtean sortua.

Benito Zambrano zuzendariaren El salto (2023) filmak inauguratuko du datorren apirilaren 12an, Victoria Eugenia Antzokian.

Zinemaldia apirilaren 12tik 19ra bitartean garatuko da Victoria Eugenia Antzokian bertan →zinemaldiaren egoitza nagusian← , Antzoki Zaharrean, eta hiriko beste eszenatoki batzuetan ere bai.

INFO+:



HITZALDIA. "FILOSOFIA, ZIENTZIAK ETA BIZIDUNAK GURUTZATZEN DIREN LEKUA."

NOIZ ETA NON: Donostia / Ernest Lluch kultur etxea
2024ko apirilaren 16a
19:00

Arantza Etxeberria Agirianoren eskutik. Elhuyarren antolatutako "Emakume zientzialarien argitan" solasaldi ziklo bat izango da.



BERRI GEHIAGO NAHI?

